


Goibekokale

1997ko iraila. 27zk.

ELGETAKO ALDIZKARIA

UDAZKENEKO HAIZEEN JAIA



F. IRIBAR
SALBADOR 9-1ª EZK.

Maderas Gallastegi, s.a.

MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA

Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA) Tel. eta Faxa: 6583061.

GAS

ELGETAN MODAN DAGO...
SUR AZPIKO BIGOTEA!
BANAKA BAINO HOBE...
BETI DA LOTEA!
LEHENA...
ALKATEAREN POTEA!
NATXORENAREKIN...
HOR BIKOTEA!
"GARRAKO" TIPOARENAREKIN...
BAI HIRUKOTEA!
GASA HAINBESTE URTE...
GUREA DA ITXAROTEA!
BUKATU BAINO LEHEN PAGATZEA...
MEREZI DUGUN AZOTEA!
GURETAKO EGINDA OTE DAGO...
KRISTON GARROTEA?

Joxe

Pare bat trago

Trago bat? Batek daki! Orain erlojua begiratu beharra dago galdera honen erantzuna jakiteko. Afariren bat eduki baduzu larri ibili. Afalosteko kontuak baino gehiago gustatzen bazaizu kontu horiek trago batekin tartekatzea ba...

Bi trago? Gobernuak berriz ere European gaudela gogoratu nahi digu. Gehiegi arduratzen ari da europarren bizimoldera egokitzeaz, baina hain ohitura txarrak al dira gureak?

Hiru trago? Ba lehenago hasi poteatzen bestela azken orduko tabernaren baten bila hasi beharko duzu.

Lau trago? Lau bakalau!!! Posibilitate gutxi eta gainera segitzeko gogoia izanez gero pil-pilean dagoen musika entzun behar. Goazen goazen guztiok batera... Hemendik at!

Bost trago? Manifa herrian. Oñatiarrek badakite honen berri. Laurehun gazte inguru tabernen ordutegiagatik kexu. Bitartean tabernariak herriko zinegotzi bat kalera bota behar berak jarritako ordu mugak ez zituelako errespetatzen.

Seigarrena? Tabernaria sua hartu beharrean, taberna bete-bete eta jendea kale gorrian utzi behar gogoz kontra. Astegunetan bale baina asteburuetan...

Zazpi? Seguruena ez duzula herrian ezer zabalik. Diskotekaren bat agian? Dagoeneko zazpigarren tragoa da, erreflexu bajuak, kontrolak bidean, kotxea hartu behar... eta gero?

hamabi, hamahiru... Gobernuak eta zenbait Udaletzek hartutako neurriak al dira gaupaseroak desagertzeko bidea? Kontu honekin zer-bait egin dutela esatearren hartu al dituzte neurriak? Ez ote dago bide egokiagorik? Norberak jarri behar lizkioke mugak bere buruari, ezta?

Bat-batean gura dute debekatzea Gau txori izatea eta hori nahiko zabaldua dagoen ohitura da egunetik gauera desagertzeko.

Iban Arantzabal Arrieta

AENOR

ER

Empresa
Registrada

ER-714/2/96

Estampaciones **Elgeta**

Estanpaketa orokorra,
Prensa automatizatuak 250 tonaraino,
Serie handietan espezializatua.



Salbador, 32. Tel eta Faxe: 76 82 61



Crudivoro-vegano

Gaur egungo gizarte honetan, egia da, etxetik irten gabe, beste kultura batzuk, beste ohitura batzuk ezagutzen ditugula. Egia da, baita, askotan ezagunagoak egiten zaizkigula kanpoko ohiturak hemen ingurukoak baino. Badakigu jakin ere, euskaldunok ospe handia dugula jateko moduagatik; hemen oso ondo jaten dugula, edo oso jatun onak garela pentsatzen dugu.

Baina zergatik hau guztia? Aurtengo uda bukaerean ni bizi naizen pisura mutil xeble bat etorri da. Nik, "begetarianoak" ezagutzen nituen baina, egia esan, ez nuen inoiz hain erradikalik ezagutu. Berak bere burua "crudivoro-vegano"tzat dauka, hau da, fruta, fruitu lehorrak eta barazki gordinak jaten ditu soilik (ez du ezer sutan egiten), garaian garaikoa ahal bada gainera. Beraz ez haragirik, ez arrainik ezta animalien deribaturik ere. Ni probatzen ez duen persona horietakoa izanik zera pentsatu nuen: "jo, ba ez daki zer galtzen duen". Baina bera pozik bizi da, eta bere ustez osasungarriena da. Bere esaldi bat hau da: "orain dela milaka urtetik dakigu janariak sutan prestatuz gero beraien propietateak suntsitu egiten direla, baina janariak sutan prestatzen jarraitzen duzue". Horretaz gain, ahal duen gehiena ekologikoa erosten du, gainera bera bizi den tokian ortua du eta bertatik gauza ugari jasotzen ditu; bestalde, bertan topaketak egiten ditu, berak bezala pentsatzen duen jendearekin. Eta begiak piskat zabaldu eta konturatzen naiz gero eta jende gehiago dagoela horretan sartuta.

Eta orduan beste galdera bat egiten diot nere buruari: "Arrazoa izango du eta hain txarrak izango dira haragia eta arraina?" Badakigu, gainera, gehien-goak modu batekoa izateak ez duela esan nahi bide zuzenetik goazenik.

On egin guztioi!!

Sonia Suarez



SOS natura


XXI. mendearen atarian, Marte deritzon proiektu baten dirutza handiak jokoan; gure inguru-nea berriz gero eta ahulago. Zein ote da planeta gorri horrentzako militar eta politikari diruzalek duten etorkizun izkuttua? Zabortege espazial bat agian?

Gure izadiaren egoera gero eta larriagoa da. Herrialde atzeratuago edo subdesarrolatuak heuren lurrak (desertu, basamortu...) alokatzen dizkiete potentzia ekonomikoei, bertan bere sustantzia edo produktu nuklear-erradioaktiboak hilobiratzeko. Batzuk ordaindu eta eskuak garbitu besteak berriz poltsikoak bete (herritarren ezjakinean) eta jokua egin. Atzeranzko pausoein aurrerabide edo desarroiloan. Nik ez dut nere burua ekologizatatzat baina argi dago lurtean ditugun baliabide eta errekutsoak bere neurritz gain esprimitzen ari garela. Garapen ekonomiko eta industrialaren primeran dator denontzat (enpresari, langile, kontsumitzaile...) baina lotsagarria da gaur egungo gure erreka eta itsasoaren egoera. Etxeko garbikariengatik hasi eta fabriketako taladrina, olio... Badira hondakin hauek erre edo depuratzeko labe eta depuradorak, baina tamalez egungo enpresariak nahiago dute irtenbideak ipintzen milioi batzuk gastatzea baino noizbehinka izun edo zerga batzuk gobernuari ordaintzea.

Ingurugiroa eta animalien habitata gure kapritxoetara moldatzen ari gara, Itoiz, A.H.T eta beste batzuk kasu. Bizitaren sortzaile diren lau elementuak (airea, lurra, sua eta ura) gure aurka jarriko dira eta mende batzuk testigu, gure ondorengoak poliesterrezko barazkiak jan, ura pildoretan edan eta amiantozko jantziak jantzi beharko dituzte eguzkitan ibili ahal izateko.

Gora lurra!!

Xabat Leanizbarrutia



Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aldizkari honek Elgetako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honen argitaratzailea

GOIBEKOKALE

Argitaratzailea: Elgetako Gazte Asanblada. Gudarien Bidea 2. Elgeta 20690. **Zuzendaria:** Iban Arantzabal **Koordinatzailea:** Ana Gillegi. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Ana Gillegi, Oxel Erostarbe eta Bittor Gallastegi. **Erredaktoreak:** Gorka Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Eider Saratsua, Maite Mandaluniz eta Ainara Iribar. **Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Komikia:** Igor Arizmendiarieta. **Horroroskopoa:** Aitor Ubera. **Kolaboratzaileak:** Xabat Leanizbarrutia, Sonia Suarez eta Jabier Arantzeta. **Administrazioa:** Esti Retolatza eta Susana Jimenez. **Publizistak:** Onditz Villa eta Eider Etxaniz (Tel: 789085). **Banaketa:** Ikastola. **Tirada:** 650 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati). **Copyright-a:** EGA. **Lege-Gordailua:** SS 475/95. **ISSN:** 1135-3538.

Goibekokalek ez du bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hirugarren adinekoentzako opor- rrak

INSERSO-K aurten ere antolatu ditu opor programak. Bertan parte hartu dezaketenak: 65 urte betetakoak, gizarte segurantzako elbarrituak, pentsiodunak eta 60 urte betetako alargunak dira.

Informazio gehiago jasotzeko edo izena emateko bidai agentzietara hauetara jo lehenbailehen: Bergaran: Ecuador edo Halcon, Arrasaten: Baskotour, Halcon, Ecuador, Eibarren: Ecuador, Egan, Iberotour edo Halcon.

"Extra" Deba Garaiko egunkaria salgai urritik aurrera

Gaur ekingo dio bere ibilbideari "Extra" egunkariak. Deba Garaiko gehigarri honetan gure eskualdeko notiziak aurki ditzakegu. Elgetak ere bere korrespontsala izango du, Patxi Montero hain zuzen ere. Printzipioz egunkari hau, %50 batean euskaraz izango dela ziurtatu dute. Bere balioa 35 pezetakoa izango da.

"Z" puntuak kendu, kontenedore- ak jarri

Lau puntutan kontenedoreak jarriko dira. Lehen emergentziarako zeuden kontenedoreak beste kasu askotan ere erabiltzen ziren. Hori dela eta osasun batzordeak egunero erabiltzeko moduan kontenedore gehiago jarriko ditu.

Salbador zeharbidean daudden kontenedore desberdinak Berraondokora pasako dira. San Roke kalearen amaieran eta Domingo Iturbe kalean bakoitzean berri bat.

Dormikooopen zegoen Z puntua kendu egingo da, bertan kontenedore bat jarritz. Lasao kalearen bukaeran ere kontenedorea jarriko da

ELGETA-KANPAZAR BIDE ZATIA ZABALDU ETA HOBETU EGINGO DA

Iraialak 22ko Gipuzkoako boletinak dakarrenaren arabera, bost hilabeteko epea dago Elgeta-Kanpazar bide zatiaren obrak enpresaren batek onartzeko.

Boletinaren arabera 900 milioi izango ditu proiektu honek hasiera batean. Bidea zabaldu eta hobetu egingo da, Eibarrerako bideak dituen antzerako ezaugarriak edukitzeko.

Bide honek jasango dituen aldaketekin batera udaletxea sailtu-

ko da Arrasateko eta Eibarreko bidea lotuko dituen zeharbidea egingen. Proiektu hau dagoeneko egingo da eta 400 milioiko aurrekontua du. Bariante honen rotonda lehengo hiltegia dagoen lekuan egingo da. "Bariantea egiteak Salbador kalea oinezko izatea ekar lezake eta etorkizun batean polikiroldegiko bigarren faseko obrak hastea" Patxi Basauri alkatearen hitzetan.



Buztingintza eta marrazki ikastaroa

Elgetako Udaletxeko kultura batzordeak bi ikastaro antolatu ditu. Bata, buztingintzakoa; bestea, marrazki eta margo ikastaroa.

Buztingintzaren hastapenak eta tornuaren erabilera ikasi nahi dituen heldu eta jubilatuek

aukera dute 2500 pesetaren truke. Hiru hilabete iraungo du ikastaroak.

Marrazki eta margorako oinarrizko teknikak ikasteko berriz 2.400pta. ordaindu behar dira eta urritik ekainera bitarteko luzapena izango du ikastaroak. Bi ikastarotan izena emateko udaletxeko kultura batzordearengana jo behar da urriaren 15a baino lehen.

F . O . R

Kalitate kontrola
Piezei azken ukituak

Tel: 76 80 38

salbador
19
behea

Berezitasuna:
Buztana.
Pintxo gozoak
otartekoak.

BOLATOKI
TABERNA-JATETXEA

tel: 768284



HERRITARRAK UDAZKENEKO JAIAN

Lehen aldiz ospatu da udazkeneko jaia. Antolatzaile eta partehartzaile guztiek oso positiboki baloratu dute jaia. Gaztetxeak kolore eta adin guztietako jendea biltzea lortu zuen. Bai kalean bai Gaztetzean giro ona.

Kirola egiten hasi zen jaia. Futbol hiru txapelketa lehen aldiz

jokatu zen eta ez da izango azkena. Arratsaldean 19 talde elkartzu ziren tortilak egiteko: familia, elkarteak, lagun taldeak...tortila egiteaz gain imaginazio handiarekin apaindu zituzten. Epaimahaiak lan handia izan zuen irabazlea aukeratzen. Tortilak egiten ziren bitartean taberna batzuetan eta plazan Gartziategi sagardotegiko sagardoa dohain edateko aukera egon zen.

Luzio eta Fakundok lagundu zuten Udazkenari ongi etorria egiten. Arratsalde osoan jo zuten eta lehiaketak musika alaia izan zuen beraiei esker. Gau partean Gaztetzean Maixa eta Ixiar Bandek jendetza handia bildu zuen.



Tortila lehiaketako irabazle zerrenda

1.- Gure Borda elkarte	70
2.- Txirrindulari elkarte	64
3.- Moralestarrak	58
4.- AEK barnetegia	57
5.- Aitor eta Alain	55
6.- Intxorta	54
7.- Mendi mendian	54
8.- Ozkarbi	53
9.- Elgetako HB	53
10.- Otxoa	50
11.- Guraso elkarte	48
12.- Elgetako EAJ	48
13.- Estampaciones Elgeta	47
14.- Gaztetea	46
15.- Ehiztari eta Arrantza elkarte	45
16.- Udaletxea	43
17.- Tabernari elkarte	43
18.- Gorritxategi	42
19.- Satanas 666	34

Sekula baino jende gehiago kontzertua ikusten, 200 pertsona inguru. Jaia igandean bukatu zen askorentzat.



ELKORO TORLOJU LANTEGIA DEKOLETARA ETA FIJAZIO SISTEMAK

Berraondokua zig 20690 Elgeta
P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 768200 - 768125 Faxes: 768203

Interneten Angiozarko orria

Dagoeneko Internet sarera lotuta dagoen edonork mundu guztitik Angiozarko orria kontsultatzeko aukera dauka. Jaietako programa, Abiadura Haundiko Trenari buruzko arazoaren informazioa, artelanak, jatetxeak... Nahi izanez gero, iritziak bidali edo informazio gehiago eskatu. Helbidea: <http://web.jet.es/xmikeo>

Liburutegiko Oharra

Urrian hasiko diren Dantza ikastaroa eta Eskulan ikastarotarako izenak emateko epea irekita dago. Interesa duena Liburutegira zuzendu behar da arratsaldeko bostetatik zortzietara bitartean edo bestela 761619 telefonora deitu.

Eskularen orduak iazko berberak izango dira: eguaztenetan ordu bietatik lauretara bitartean margoketa, kuadro, etab. Barikuetan, ordu berdinean, gantxiloa. Baten batek beste zerbaitetarako gogoia edukiko balu proposamenak ere egin daitezke, horrela urteko programaketa egiteko.

Frontoiko obrak

Datorren hilean, urrian, hasiko dira frontoiari teilatua ipini eta jarleku berriak egiteko lanak. Gainera bi epetan egin behar ziren lanok badirudi ekinaldi batean burutuko direla, aldagela eta almazena izango den etxetxo ere orain egingo baita, horretarako behar den lur saila erosi ondoren.

Gainera sei hilabetetan gel-dirik dauden Gaztetxea berrizteko hasi ziren lanak ere jarraipena edukiko duten itxura dute. Udaletxeak ordezkorik aurkitzen ez duen bitartean mantenu lanok egitea erabakitzekotan da eta. Beraz, urte bukaerarako lan hau ere egina egon daiteke.

SAN MIGEL JAIETAN JENDE ASKO

Urtero legez etxaflero hotsa ez zen falta izan eta ikurrina jarri ondoren hasi zen jaigiroa.

Plater tiraketan herrikoak hartzen dute parte eta tiratzaile bikainak daudela erakutsi zuten.

Mus txapelketan hamasei bikotek hartu zuten parte. Musean irabazteko gezurtero ona eta keinu egile ona izan behar omen da eta honetan "Tranpas" eta "Pitirrio" izan ziren aurtengo irabazleak. Bigarren Unai Etxeberria eta Ibai Elortza izan ziren.

Jaietako ekintza berria izan zen sardinada. Horrelakoek giro berezia lortzen dute eta Angiozarren ere giro aparta izan zen. Baliteke jaia oso alai izatearen erruaren zati bat sagardoarena izatea. Sagardo ona, sahieskia, sardinak eta giroa aparta. 105 lagun inguru batu ziren. Hurrengo urtetan ere izango

da antzerako zerbait. Gauean ere sekula baino dantzari gehiago hurbildu zen Parranda Mexicana eta Koxka taldeak ikustera. Dantzan egiteko aukerarik ez zen falta izan. Ondoren, goizaldeko 4:00retan Mendaroko txokolatearekin indarrak berreskuratu eta gautxorienek gaupasa egiteko aukera ez zuten galdu.

Domekan Bergarako bandaren ondoren herri kirolak ikusi ahal izan ziren.

Iluntzeko 20:00etan Juanita Laspiurrek eta Bolintxoko Maria Luisak irabazi zuten briska txapelketa.

Jaiari SanMigel egunean eman zioten bukaera. San Migel 6. aldiz zeruratu zen eta agertu Falcesen, Irunen, Munitibarren, laugarrena Angiozartik gertu eta bosgarrena oraindik agertu ez bada ere aurtengoa joan da. Ia hurrengo San Migelak baino lehen agertzen den.



Taberna Zaharra
jatetxea

Bazkari eta afariak tel: 76. 21. 21

Angiozar

LENIZ

AUTO ESKOLA

Arana, 13 Tel: 714186
ESKORIATZA

Aldai, 9 Tel: 794604
ARRASATE

LEHIAKETA

Baserrien atala asko irakurtzen omen da baina hiru arrazoi bururatzen zaizkigu baserri hau zein den jakinda *Goibekolalera* kartarik ez bidaltzeko. Bata, nagi samarrak izatea, bestea, maketatzaileak asmatu beharrekoa zaila jartzea, edota *Goibekokaleko* afariak zein goxoak izaten diren ez jakitea.


Untzetabazterretxeatarrek badakite nonbait zelakoak diren afariak eta anai biek bidalita bat saritzeko aukera handiak zeudenez ba...

Asier Untzetabarrenetxeak baserri hau Ikatzarre dela jakin eta kartatxo bat idaztearren birentzako afaria irabazi du. Zorionak !!!!!!!!!!!!!!!

Ale honetakoa ez da baserri bat, denbora asko ez dela daude Elgetan, baina, zer demondre da? Non demondre daude?

Zure erantzuna badakizu nora bidali, *Goibekokale*, Salvador kalea 2 Kultur Etxea, Elgeta (Gipuzkoa).

Zorte on!!!!!!!!!!!!!!




Izena eta abizena: _____
 Erantzuna: _____
 Bizilekua eta telefonoa: _____

KOMIKIA




Zer pentsatzen jatzu AEKkuen egonaldixa Elgetan?

Aurtengo udan, euskaria ikasten dabillen jende asko egon da Elgetan, 150 inguru. Hori dala ta pentsau dogu egonaldi horren gañian elgetarrek zer pentsatzen daberen jakitzia.



Ikaslia (14 urte)

Ondo pentsatzen jata. Nik neska batzukin euki dot hartu-emona ta oso jatorrak izan dira. Egon naiz eurek antolautako ekintzetan: akelarrian, kontzertuan...Gustauko jatan datorren urtian berriz etortzia.



Etxekoandria (33 urte)

Ez dot hartu-emon haundirik euki eurekin baiña, ekintza interesgarria dala pentsatzen jata. Ez naiz egon eurak antolautako ekintzetan, baiña kanpotik begiratuta ondo ikusten dot. Ni ez nabe molestau ta ondo pentsauko jatan datorren urtian be etortzia.




Tabernarixa (48 urte)

Nerekin oso ondo portau dira ta ondo pentsatzen jata. Guk be oso ondo pasau dogu eurekin. Ez naiz egon eurek antolautako ekintzetan baiña tabernan hartu-emon haundixa euki dot. Ondo pentsauko jatan datorren urtian berriro etortzia.




Bihargiña (37 urte)

Ondo pentsatzen jata, behin juañ gañian umiekin eurak egoten diran lekura ta sekulako juergia antolautu zeken reggae musikiakin. Euki dot hartu-emona eurekin baiña, guk baiño gehixau umiek euki dabe. Ondo pentsauko jatan datorren urtian be etorriko balitzaz euskaria bultzatze-ko modu bat da ta.



Bihargiña (50 urte)

Nik ez dot euki eurekin hartu-emon haundirik baiña ondo pentsatzen jata jende jatorra izan dalako. Egon nintzan gaztetxian antolatu zeben akelarrian ta oso ondo egon zan ze jendia oso animauta ibili zan. Gustauko jatan datorren urtian berriz etortzia, aurtan jende ona ikusi dot ta.



Irakaslia (43 urte)

Ez dot euki hartu-emon haundirik eurekin, baiña gehixen lehenengo txandakuak ezagutu dittut, gero kanpuañ egon naizelako. Eurek antolautako ekintzetan ni neu ez naiz egon, baiña nere alabak bai. Ondo pentsatzen jata berriz etortzia, gerorako herrixan onerako izango dalako.

ZABALA

Lasao 6 Elgeta
Tel: 768075-6 768225
Faxa: 768201



HERMANOS S.A.

EHIZARAKO
ESKOPETA EGILEA

♈	Aries: Hillabete eskasa eukiko dok/don. Gustoko ez dian sorpresa batzui aurre egiñ biharra.
♉	Taurus: Momentu txarrak pasauko dittuk/dittun, baiña txarrak be etorriko dira.
♊	Geminis: Zure lagunekin txaparro batzuk eukiko dittuk/ dittun, baiña ondo amaittuko dozue.
♋	Cancer: Ondo zaindik/zaindin hire karteria galtzeko arriskua daukak/ daukan ta.
♌	Leo: Jokuan irabaztako dana eta gehixau gastauko dok/ don.
♍	Virgo: Txantagia egittiak ez dua/dona gauza onik ekarriko.
♎	Libra: Denbora libria faltako jatak/jatan, baiña gerotxuau uste ez dittuan/dittunan oporrak etorriko jatazak/ jatazan.
♏	Escorpio: Emoziñuak eragiñda ez dok/don esango sentitzen duana.
♐	Sagitaris: Oparitxo bat egiño dozte/done uste ez duan/donan persona batek.
♑	Capricornius: Istarriko miña etorriko jatak/jatan. Bufandia erabili bada- ezpada.
♒	Acuarius: Kriston sustua hartuko dok/don loterixako zenbakixakin.
♓	Piscis: Arazo bat dala eta biharra egitten dozun postua aldatuko dozu.

M^a Jesus Arrazola Dendarixa (43 urte)

- Zenbat urte dendari moduan? 26 urte.
- Zer moduz pasau dozuz oporrak? Ondo baiña motzak.
- Zer nahixau dozu lan egitteko, goiza ala atsaldia? Goizetik.
- Seme alaben laguntzia dendan igartzen da? Bai, noizian behin laguntzen dabe.
- Orain hamazortzi urte euki ezkerero zer aldatuko ziñuke zure bizitzan? Gauza asko; konkretuan ez dakitt.
- Zer moduz portau dira AEKkuak? Ez dot euki harremanik eurekin.



- Etxian zein da formalaua semia ala alabia? Segun zertarako. - Ta kalian? Alabia, semiak ez dau urtetzen ta...
- Hipermerkauak ala denda txikixak? Denda txikixa daka-tenez, denda txikixak.
- Hamarretakoik egitten dozu? Bai. - Zer? Danetik pixkat, hamarretakua, hamaiketakua ta danak, pikau egitten dot.
- Zelan ikusten dozu zure burua hemendik urte batzuta-ra? Oraingo antzera.
- Zer ekartzen dotzue gogora honek berbok: Lady Di, gabonak, Garbera? Printzesa bat, familixan egoteko egunak, hipermerkau haundi bat.
- Aldizkarixak, telebista ala radixua? Aldizkarixa, baiña astirik ez daukatenez radixua.
- Karta bat zabaltzerakuan zer gustauko jatzun irakurtzia? Notizia on batzuk.
- Azkenengo egon zazen erromerixia? Elgetako jaixetan, Eganetan.
- Zertan gustauko jatzun 20 milioi inbertitzia? Lehenengo behintzat opor eder batzutan.
- Zein izan da udako kantua? Bexamela ta pastela.
- Ta zuretzako bexamela ala pastela? Bexamela.
- Ikusi bihar dozu Iñaki ta Kristinan bodia? Bai, derrigo-
rez, baina ez ñeuk ipinitta telebista.

**IBAIBA-
RRIAGA**
GARRAIOAK

Tel: 768072
Salbador zeharbidea 2
ELGETA

**M^a Karmen
Lenzeria**

Lentzeria eta
kosmetika gaiak

Salbador zeharbidea.
Tel: 789040

ANA LIBURUDENDA

Zatoz beste
dimentsio batetara!

Tel: 768078

ETORKIZUNA AUKERATZEN

-Etorkizuna nolakoa den ezin dugu jakin. Elkarrizketatuek ikasitakoa beraien etorkizuneko lanaren giltza izango denik ere ez dakite baina, aukera egin dute-

UBI edo REM-eko laugarren maila bukatu duen gazte talde berria dugu Elgetan. Batzuk behintzat ikasten jarraitzeko asmoa azaldu digute. Beren hitzetan ez omen dago beste biderik gaur egun. Gainera gurasoak ere pozik egoten dira erabaki honekin. Etapa berri honi ekingo dioten hiru gazte bildu ditugu. Orainarteko esperientziak eta etorkizuneko amets ez aritu gara.

Jone Oianguren, Ibai Etxaniz eta Ainara Iribar dira. Hamazortzina urte dituzte eta unibertsitateko ikasketak hastear daude. Jonek turismoko ikasketak hasten ditu eta Ainarak enpresariales, biak ere ESTEko unibertsitatean Donostian. Ibai berriz etxetik hurbilago geldituko da, Arrasaten, ingeniari-tza tekniko-ko ikasketak egiten.

Ainarak eta Jonek aste gutzia pasatuko dute Donostian, "etxea aurkitzea abentura bat da, egun gutzia batera eta bestera, batean prezioa bestean etxearen egoera... zaila da behar bezalako tokia bilatzea. Gainera, etxea aurkitzeko zerbitzuak desagertzen daude eta galdu xamar sentitzen zara haseran". Ibaiek du zortirik

haundiena beraien ustez, "etxean bezala ez da inon egoten".

Haserako beldurra

Unibertsitateko erritmora ohitzea da zailena. "Orain ardura gure esku dago ez da institutoan bezala irakasleak ez ditugu gainean

izango" hauxe uste du Ibaiek behintzat. Ibaiek kurtsuaren aurkezpena izan du dagoeneko eta "desmoralizatua" heldu da etxera. "Ez dakit zer nahi zuten, gu desanimatu edo lan egiteko gogoak kendu, lehenengotik azaldu digute oso gogorra izango dela eta lan handia egin beharko dugula kurtsua pasatzeko".

Jone eta Ainararen ikasketak ere gogorak dira. Ainarak 5 urte pasa beharko ditu ikasketak bukatzeko eta beldur dela aitortu digu, "gainera

Ibai Etxaniz: "Oso garestia da gurasoentzat ikasketak ordaintzea eta gainontzeko guztia. Momentu honetan seme-alabok diru asko suposatzen dugu".

ikasketak arratsaldean dira eta ordu-tegi aldaketara moldatzea asko kostako zait". Jonek 3 urte egingo ditu unibertsitatean eta gogotsu ekiten dio bizitzari berri honi "hizkuntzak asko gus-tatzen zaizkit".

Ez omen dute informazio asko izan beraien aukera egiteko.

"Liburu bat ematen dizute unibertsitate mailako ikasketak ikusteko baina ez du informazio interesgarri-rik, zeren eta ikasgaiak jakitzeaz gain beste informazio interesgarri asko dago, horretarako bertan ikasten dagoen jendearekin egotea baino hoberik ez dago". Lan irteer-erri berri ere ez dute, "gustoko dena aukeratzen da eta gero ikusi-ko dugu".

Hiruren ustez zaila da karrera bat aukeratzea, "gainera gaur egun institutoan zaudenean arloak aukeratzen hasten zara eta honek dagoeneko mugatu egiten dizkizu hainbat irtenbide". Ibaiek zerrenda hartu zuen eta bai-ez, bai-ez metodoaren bidez aukeratu zuen. Azkenean gustoko zuenez eta etxetik hurbil zegoenez Arrasateko eskola aukeratu zuen. Dena



OSTATU
JATETXEA

Gudarien Bide
Tel: 76 80 23
ELGETA

Eguneko menua 800 pzta.
Karta.

IRAMA

Instalazioak eta
mantentze lanak

24 orduko zerbitzua
mensatel: 900282828
abonatua: 247262
tel: 789057-768025

dela Euskal Herritik kanpora ikasketak egitea ez dute pentsatu ere egiten, "nere ustez, dio Jonek, oso gustoko izan behar du zerbaitek kanpora joateko, unibertsitatearen ospeagatik ez nintzateke joango".

Azken urteei errebaso

Ainarak Arrasaten ikasi du eta Ibaiek eta Jonek Bergarako institutuan. Asko ikasi dute bai Elgetan eta baita Bergaran ere.



Elgetan ordutegia zen onena, Ibaientzat bazkalteko etxean, arratsaldetara libre... "Irakasleak ere oso onak izan dira gainera ikasgelan gunden guztiok gara orain lagunak". Kanpora n egon direnean irakasle-

leen laguntza asko izan dute, "ez da hotza, harreman estuak egiten dira" Joneren ustez.

Ainara Iribar: "Matematikei beldur handia diet eta unibertsitateari erritmoa hartzea zaila egingo zaidala uste dut".

Ibaiek eta Jonek irakasle oso onak izan dituzte Bergaran, gainera irakasleek lan handia egiten omen zuten berekin. "Aste kulturala oso ona izaten zen baina aurren dagoeneko ez dutela antolatuko esan digute, beraienezako lan handia da eta jendea ez bada joaten alperrik omen dabilta". Gure ondorenetik datorren jendea ikaragarria da, dio Jonek, errespetu falta dago". Ainarak dioenez ez du hainbeste kultur ekintza izateko aukera izan bere eskolan eta adin horretan oso garrantzitsuak dira hitzaldiak eta gauza desberdinak egiteko aukerak. Bai Elgetan eta bai ondorengo ikastetxetan esperientzia ona izan dute.

Garestia da


Etiketikan kanpora bizitzea ez da bakarrik neketsua ikasleentzat "gurasoentzat diru asko da" Ibaientzat, "ez da bakarrik matrikula, klasetik kanpora ere ikasi egin beharko dut akademietan eta hori diru asko da ingenieritzako

Jone Oianguren: "Bizitzaz asko erakutsi digute orain arte eta oso gustora egon naiz orainarteko ikastokietan".


ikasketetan". Ibaiek gutxi gora-behera lan ordutegi bat prestatua du gainera, eskolako orduek gainera beste hiru sartzea eguneko, bestela ez du aprobatzeko aukera ikusten. Jonek ordu asko sartu beharko ditu hizkuntzak ikasten eta Ainarak ziur aski mate-

matikei gogor ekiten.

Bekak askotan ez dira nahikoa Joneren ustez. "Gu hiru gara eta familia ugaridunen mailan gaudenez dirulaguntzak jasotzen ditugu, dena dela unibertsitate pribatua da eta Donostia nahiko garestia. Ikusiko dugu nola moldatzen garen".



Urte batzuk barru berriz elkartuko gara guzti honetaz hitzegiteko eta ziur daude gaurko beldurrak ez direla ezer izango orduan izango dituztenekin gonbaratuz. Zorri on beraz!



Jesús Marí Montiel
**ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK**

Artekale 3.
Mo: 908773950 Eibar Tel: 700719

**KONPONKETAK SUKALDE
ETA BAINUGELETAN**



Larunbatetan eta igandeetan bertako babarrunak, sailheskia erreta.



tel: 768273

ZER DA BARNETEGIA?


Uda honetan zuen buruetan izandako galdera; hau da, zeintzuk dira herria inbaditzera etorri diren hauek? Argitzekotan idazten dizuegu.

AEK-ak horrelako ikastaro edo udalekuak antolatzen ditu eskal hitzun izan nahi duen orontza. Barnetegiak iraupen desberdinekoak izan daitezke, hau da, 2 astekoak, 3 astekoak edo 4 astekoak. Aurten Elgetan 2 astekoak, soilik, antolatu ditugu herrikoentzat guretzako herri berria baitzen. Barnetegi guztietako ordutegia honako hau da: 8:30etan gosaldia; 9:00etatik 11:00ak arte lehenengo eskola; 11:00etatik 11:30etara atsedena izaten dugu; 11:30etatik 13:30ak arte bigarren eskola ordua. Bazkal ordua, normalean aldakorra da, baina, 16:00etan eskolan izan behar dira 18:00ak arte. Gero ordu bateko tailerra dugu.

Tailer hauek ikasleek dakinaren arabera antolatzen ditugu. Adibidez: batek dantzan badaki besteei irakasten die, bera irakasle izanik. Guk egindako tailerrak hauek dira: Euskal kanta tailerra, masaia tailerra, txalaparta tailerra (herriko gazteek eskainia), maskara tailerra, pitonisa tailerra.

Elgetan bereizgarriren bat izatekotan jantokiarena da. Hemen jantxe batean bazkaltzen baitugu, beste barnetegietan, aldiz, barnetegiak berak du jantoki eta sukaldea.

Barnetegi baten helburua ikasleak eskolak hartzeaz gain beraien artean euskaraz 24 orduz aritzea eta batez ere ingurune euskaldunean integratzea eta lagun euskaldunak egitea da.



Eskola orduetan euskal kanta ikasten


Zuek ondo jakingo duzue- nez ikasleak normalean gazteak izaten dira. Batzuek beste 24-25 urte-takoak. Gehiengo bizkaitarra da.

Barnetegi batean herriak ere garrantzi handia du, herritarrek eskaintzen dizkiguten festa, ekitaldi eta abarrak aberasgarriak dira oso. Gure kasuan ere lehen astean Panaderokuan antolatu zuten kantaldia eta Gazte Asanbladak antolatutako lehenengo udazken festa guretzat ohore handikoa izan da eta benetan eskertzekoa ere bai.

Barnetegi batean zehar irte- era ugari ere egiten dira inguruko bizimoduaren erakusgarri diren lekuak bisitatuz. Elgeta inguruan leku interesgarritzat jo ditugunak hauek izan dira: Asentzio (pagadi eta leku ederra), Elorrio (momentu historiko ugari dituen tokia baita: Nekropolisa, jauregiak, dorretxea, Gaztetxea...) Urkiola, Altube baserria, Barrenengua base- rria (Julian Beretxinaga Garitaonan-

dia biak kontu zaharra eskainiz) Urkulu urtegia (herrikoek aholkatutako paraje ederra).

Besterik gabe gure eskerrik beroenarekin beti arte ELGETA.



Barnetegiko azken txandako irakasle ta ikasleak


EROSLE
M. Asun Agirre
Salbador 26. Tel: 768190

E
HARATEGIA
A
S
T
San Roke 6
Tel: 768168.

Goio Sarasua
Igeltzeritza lanak
Teilatuak Sukaldeak
Etxaurreak Komunak
Otzango Behokoa Baserria. Tel: 860156

POPIETAK

Sukaldaria: Eider Sarasua
Elgetako Gazte Asanblada



NOLA PRESTATU:

- Xerrak ondo zabaldu eta gatzitu.
- Ondoren, urdaiazpikoa, gazta (biguntzeko modukoa) eta pipar berdeak bata bestearen ondoren xerra gainean ipini.
- Poliki-poliki biribildu eta zotz batekin katiatu.
- Azkenik ogi birrinduan ondo pasatu eta olio berotan egin.
- Egindakoan zotza kendu.

OSAGAIAK:


(2 pertsonandako)

- 4 xerra finak
- 4 urdaiazpiko xerra
- 4 gazta zati
- Dozena bat pipar berde
- Ogi birrindua
- Olio
- Gatza



GOMENDIOAK:

- Olio beroa dagoenean popietak bota; su baxuan egitea komeni da, bestela, barrukoa egin gabe gelditzen baita.
- Plater honi laguntzeko aukera ugari dago: entsalada, patata frijituak, patata purea, pipar berde eta gorriak... besteak beste.



Elorrio bide z/g 20690 Elgeta
Tel: 768050-789031 Faxa: 768243

TAPEM, S.A.

Trokelak eta estanzazioa
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK

Tel: 76 81 31
M^a Jesus
Arrazola

VIVO
Janari
Jendakari



KONTXI
ARRANDEGIA
Salbador 5 Tel: 768009

PILOTA JOKOAREN HISTORIA I: HISTORIAURREA


Pilota indarrean dagoen kirola da. Nork ez ditu ezagutzen Retegi II.a, Elkoro, "Koteto" Ezkurra, Torre, "katxin" Uriarte... Baina pilotaren jokoaren jatorriari buruz galdetzerakoan gutariko askok ez luke jakingo nondik nora jo. Non aurkitu ziren joko honen lehenengo aztarnak? Gure kultura hain barneraturik dagoen kirol hau bertan ala kanpoan sortua da? Galdera hauei eta beste hainbati erantzuna bilatzen saiatuko gara ondorengo hiru aleetan.

Zoritzarrez, historiaurreko arkeologiak ez du pilotari buruzko daturik jaso. Ez inolako pilota motarik, ez eta jolasteko tresnarik edo marrazkirik ere. Harrizko bolak dira aurkitu den material bakarra. Beharbada, artzain herrietako kulturetan munizio gisa erabilia izan zena.

Noiztik jokatzen da pilotan Euskal Herrian? Galdera honi erantzun zehatz bat aurkitzea ez da erraza. dena den badago ahalik eta ondorio fidagarrienetara heltzeko datu bat edo beste. Azken finean helbururik garrantzitsuena euskaldunak eta pilotaren arteko erlazioaren sakontasuna gizaldietan zehar noraino atzeratu daitekeen ahalik eta garbienen ulertaraztea litzateke.

Lehenengo aztarnak

Hutsegiteko beldurrik gabe esan daiteke, euskal historiaurreko



Marrazki honek argibide bezala balio dezake garai hartako pilota jokua ulertzeko.

arkeologi ikerketek ez dutela pilota jokoarekin zerikusia daukan aztarna bakar bat ere azaltzen.

Gizonak eginiko pilota zaharrenak Egipton aurkitu dira. Idazle erromatar eta greziarren bitartez jakina da Grezia eta Erro-

ma klasikoetan pilotan iharduten zutela. Pilotak partehartzen zuen jokuren bat ezagutzen zuten behintzat. Idazle hauek "Vasconum"-en pilota jokoetan abilezia nabarmenik zeukan gizonik egon zitekeenik ez zuten inoiz idatzi.

Ez da aurkitu, beraz, idatzitako daturik ez eta, Paleolitiko, Neolitiko eta Metalaren garaietan pilotan egiten zela ziurtatzen zuen aztarna fisikorik. Horrek ez du esan nahi garai hartako euskaldunek pilota jokuren batean jokatzen ez zutenik.

Arkeologi ikuspuntutik begiraturaz gero, jakina da aintzina-ko gizakiak pilotagintza ezagutzera heldu baziren ere ezinezkoa litzate-

**zenbaitzuren ustez,
artzainek jokatzen
zuten joku zahar bat
da gure pilota jokua
(Aita Barandiaran).**

GRUPO IFA Produkturik onenak,
prezio onenean

Tel: 76 80 98.

ALDI

HAIZEA

TABERNA

giro atsegina
lagunartean
egoteko.

Tel: 768256

keela landare edo animalien zatiren batekin egindako pilota gaur eguneraino kontserbatzea.

Artzain eta ehizaren erlazioa pilotarekin

Hortaz, orain dela 30.000 urte kobazuloetan bizi ziren ehiztari eta arrantzaleak, kultur aurrerakuntza eta ingurune antzerakoetan bizi izan ziren gizakiak, pilotak egiteko gai zirenen posibilitatea kontutan hartzekoa da.

Zenbait autoreren arabera (Jorge Oteiza esaterako) pilota jokuaren sorrera Neolitiko garaian koka daiteke. Baliteke gainera pilota jokuaren oinarrian ehiztariaren ogibidea egotea.

Beste zenbaitzuren ustez, artzainek jokatzen zuten joku zahar bat da gure pilota jkoa (Aita Barandiaran).

Artilezko pilota artzai herriengandik datozen ohituretan oinarrituta omen dago. Europako herriak ehiztari izatetik abere zaintzaile izatera pasa ziren, klima epeltzen zihoan heinean. Aita Barandiaranek aditzera eman duen bezala garai honetan artzainak elkartu eta "dantza, pilota joku eta beste solasaldietan" aritzen ziren euskal mendietan. Pilota-sorotan jokatzen ziren artzai-pilota partiduen lehen urratsak, beraz, Neolitiko garaian sustraitzen dira.


Euskal artzainek praktikatzen zuten pilota jokua gaur egungo tenisaren antzekoa zen.

Artzainen pilota joku honen arauak ez daukate inongo ulerpen zailtasunik, lehenik, angelu berdineko laukizuzen bat egin eta erdian marra bereizgarri bat ezarriz belarrezko zorua eratzen zen eta ondoren jokalariai marra-aren alde batetan eta bestean koka-

tzen. Pilota marraren beste aldera bidaltzean legoke jokoaren gakoa.

Gaur egun Euskal Herriko muga barruan dauden parajeetan artzainek eraikitako "dolmen" eta "menhir" -en ugaritasunak orain dela 5.500 urte Urbia, Oltza, Arabako mendi edo Degurixako larreak artzain-pilota joku ugarien lekuko izatea balitekeela pentsarazten digu.

Aita Lekuonaren esanetan oraindik gutxirarte, artzainek jokatzen zuten pilotan mendi ton-torretan. Aralarren oraindik ezaguna da belardi bat "pilota -soro" izenarekin.



Neolitiko garaian lur eremu hau hartzen zuten euskal artzainek.

Zenbait autoreren arabera (Jorge Oteiza) pilota jokuaren sorrera Neolitiko garaian koka daiteke. Baliteke gainera pilota jokuaren oinarrian ehiztariaren ogibidea egotea.

BILTEGI DENDA
Zugandik gertu behar dugun beste
Salbador 24 Tel: 768206

Kartetan jokatze giro egokia
Tel: 768093
P a t x i Taberna

Hozkailuak eta izozkailuak aire giro-tua.
Salbador 21 Berraondokua 7
Tel eta faxa: 78 90 46

GOIMENDI

Ermite: San Migel Monte

Jaia: Maiatzak 8an

Normalean San Migel egunetik hurren gelditzen den zapatu arratsalde eta gauean ospatzen da jaia: Meza elizan, luntxa elizaurrean eta gero iluntze aldera auzotarren (bertan eta kanpoan bizi direnen) afaria Kanpazarren.

Nahiz eta azken urteotan galdu xamarra egon, San Iñazio egunak ere indar handia eduki zuen. Jai hau Kanpazarren ospatzen da, eta beste lekuetan bezala muga egiten duten lurretako edo artzai uneetako jaia da (Urbian, Gorbeian,...)

Baserriak eta etxeak:

- Zelaitxueta (Zelaitxo)
- Lasarte
- Zulueta Gainekua (Zulota)
- Zulueta Azpikua (Zulota)
- Pagadigorria (Paiorri) hormak.

- Gongeta, bi bizitza:

- Lazpiur familia (erorita)
- Arbulu familia (hutsik)
- Gontzarri Gainekua
- Gontzarri Azpikua
- Ametz Azpi
- Lope Barri

- Lopealdeoste (Lopaldoste, Lope), bi bizitza:

- Ugarte familia
- Loiti familia
- Altuna (Altune) hutsik

Goimendi auzoa beste izen batzuekin ere ezagutua izan da denboran zehar: Altunamendi, San Miguel de Monte, Kanpazar, eta abar, baina beti iraun duen izena, eta gaur egun bai bertakoek zein kanpokoek ematen dioten izena Goimendi da. Bertakoek euren buruari "goimendiarrak" deitzen diote. Angiozar Bailara hau osatzen duten auzoetatik nortasun handienetarikoa duena da Goimendi, beharbada horretarako beste angiozartarrekin duten komunikazio arazoak laguntzen duelarik, kaminorik ez baitago zuzenean. Duela ehun eta berrogei urte ere hamalau etxebizitza zeuden, gaur egungo etxe batzuk orduan bi bizitzakoak ziren eta.

Goimendiko baserriek Angiozarko beste baserrien sistema jarraitzen dute: eguzki begian daude kokatuta, gainetatik hasi (Gontzarri baserria da altuen dagoena 555 metrora, Angiozarko gorenaren dagoen baserria da) eta ia Epele errekaraino helduz (Zelaitxo 410 metrora, Gongeta 385 metrora eta Altuna 330 metrora itsasoz gain). Denek dute hegoaldera begira bizitzeko lekua: eskatza, kuartoak... ileran daudelarik. Normalean, kortara bitartean sortzen den pasiloan ganau asken leihoak aurkituko ditugu. Etxe hauetan goiko pisuetan kuartoak egotea nahiko moder-

noa da oinarrizko egiturekin konparatuz. Zulota Gainekua eta Altune kenduta beste etxeak txabola edo borda txikietatik abiatuz poliki-poliki eraikitakoak dira, kanpoaldetik zati berriak itsatziz.

Epele errekan, gaur egun hain garrantzizko bihurtu den komunikabide gune honetan, Angiozarrek Arrasatekin muga egiten du, Meatz-Erreka auzoarekin. Bertakoekin giza talde nahiko bateratua osatzen dutel goimendiarrak: Mietzerreka soziedadeko kide dira gehientsuenak, Goimendiko erro-

tan parte izan ziren Mietzerrekako hainbat baserri, argi-indar zentrala ere batera eduki zuten, eta abar... Dena den berbetaz ere muga Epele erreka da, "mondrauetarrez" ez da egiten eta Goimendin.

Ingurune honek duen beste berezitasun bat zera da: Azken lau mila urtetan behintzat bertan jendea bizi izan dela modu iraunkorrean edo sasoika. Horren lekuko, testigu, dira Sustraitzan hasi eta Hirutontorretaraino dauden harrespila edo tumuloak, Kristo jaio aurreko burdina aroko artzai gizar-




San Migel Eliza.

te haren hilobiak dira: Tranpaluarri, Lasartegain, Gontzarrigain, Hiru-tontorreta,... dira batzu. Merezi du gure arbasoen lan hauek ikusteko buelta bat ematea. Garai haietako lanbideak, ardi artzantzak, gaur egunerarte iraun du, gaur egun ere bost etxetan ardiak dituzte.

Auzo funtzionamendu onak abantaila batzuk ekarri dizkio Goimendiri, adibidez etxeetarako bidea, autoak ibiltzeko modukoa, beste inon baino lehenago lortu zuten egitea 1940 eta 1950 urteen bitartean. Zazpi urtetako neguetan lan egin zuten, negu bakoitzean hirurogei bat egun egiten zituztelarik pikatxoi, porra, palanka eta abarrekin, Kanpazarren hasi eta Gontzarri azpiko erromararaino. Hortik Lopera geroago egin zen.

Lan honen bultzatzaile nagusia Jose Mari Murua, Zulota Gainekua izan zen. Etorkizuna aurrikusten jakin eta auzotarrak lan honetarako animatu zituen: Pikatxoiarekin jo ta sua harri tontorrrak apurtu ezinka zebiltzan bitartean "oraindiño hau danau ta-ta-ta bardinduko daben makiña eto-



Gontzarri azpikoa, Txabolondo ingurutik.



Elgeta eta Elorrio arteko mugarria Zelaitxo inguruan.

rriko da" esaten zielarik besteei, gerora agertu ziren eskabadorak iragarritz.

Bide hau izan zen baita Angiozarren zementoz egin zen lehenengo bidea, besteei bidea irekiz. Gaur egunerarte mantendu du auzoak bide honen administrazioa, kontu liburuak dagoeneko berrogetamar urte duelarik.

Argi-indarra Mietzerrekako Zentraletik ekarri zen 1928an. Geroxeago, 1930ean Arrasatetik Elorriora linea ipini zenean (Jakako indarra deitzen zitzaion honi), linea berria tiratu zen Goimendira eta egun guztian elektrizitatea edukitzera heldu ziren, Mietzerrekako zentralak gora behera haundiak edukitzen baitzituen. Jakako indarra deitutako hau pagatzera Elorriora joan behar izaten zuten, etxe guztietako kontadoreen batuketak eta kontadore generalekoak bat etorri behar zutelarik, eta hori ez zen beti gertatzen...

Argi indarra zela eta telegrafo antzeko bat ere asmatu zuten: etxe batetik bestera abixua bidaltzeko plantxa elektrikoa entxufean sartu eta hurrengo etxean bonbilari kiñuak eragiten zizkioten, aurrez jakinean zeuden gai bati buruz erantzunak emanez.

Auzo egituraren beste ezaugarri bat errota izan zen. Oraindik zutik jarraitzen duen errota hau, gaur egungo Epeleko bide berriaren alboan, Altuneko lurretan eraiki zuten, horretarako soziedadea eratuz. Goimendiarrez gain Mietzerrako (Sara, Montzon...) eta San Prudentzioko (Ziarrokerua, Kotzabal...) baserriak ere parte ziren errota honetan. Garia lantzea desagertzearekin batera etorri zen errota eta soziedadearen gainbehera.

Auzoko egitura horretan ganauendako "Hermandadea" ere duela 30 bat urte desagertu zen, Lana Kooperatibara esne saltzen hasi eta bertako sozio egin zirenerarte. Ondo araututako erakundea, bere estatuto, bilera, ordezkari eta abarrekin, ganau mota bakoitzak bere mota berdineko erantzuten ziela zuen berezitasun.

Jarraituko du....

KONTUTXO BAT

Udia be bere akaberaruntz badoia eta sutonduan entzuteko moduko kontutxo bat okurrittu jata. Egixa esan nagusixak entzutekua da, baina igual umeren batzuk pe entendiduko dabe.

Bazien behin euskeraz askorik ez zekixen familixa batzuk, eta euren umiek be euskeran nota txarrak ekartzen zittuen eskolatik. Hala ta be, familixa horretako gurasuek euren umiak Ayuntamenturen baten edo Gobierno Baskuan edo antzerako lekuren batian lan eittea nahi zeben eta horretarako gaur egunian euskeria ondo jakin behar ei da. Gainera uda asuan umiak etxian traban eukitzia be ezta plana eta asunto guzti honek konpontzeko euskarako kolonietara bialdu zittuen umiok, ea euskerian asuntuan konpontzen zien.

Sasoi hartan bazan gipuzkuan giputx gehixenak leitzen zeben erdarazko periodiku bat. Egixa esan puten anuntziuak, eskelaren bat edo beste, ganadu eta ferixa asuntuak eta euskal kulturako notiziak batzuk euskaraz etortzen zien, baina benetako gauzak: Errealia, politikia, bizikleteruak eta beste

notizia inportantiak erdara hutsian etortzen zien.

Fan zien ba, hasieran aittatutako umiak euskeria ikastera Bizkaiko lekuri eder eta ezkutuenetarikora ta han be erderaz ein biar, ganoarabakuak halakuak!. Eta maixuak, bia dan moduko ikastola modernuan ibili bakuak zienez, ba, ez jakin umioi euskaraz ereittekoker ein, eta motxilan harrixak satuaz ume gixajuon bizkar hezurak okertu biharrian ez dittue ba ipini.

Asuntua hola dauela enterau dia periodiku horretan euskeria

dala eta ez dala giputx gazte eta kulpabako horrei zelako sufrimentuak pasau erain dotsen eta, giputx danak enterau daittezen euskerian kulpaz zelakuak eitten dien, jarri dabe notizia letra haundittan, eta erdaraz, hau be inportantia da, Zelan ez! .

Akabo! Giputx danok larrittuta, gure ume gixajuak betirako bizkarroker euskerian kulpaz, gainera, bizkarroker izanda, ertzaina be ezin izan euskeria jakin arren, hau da desastria! Hasi dia politiko giputx eta bizkaitarrok asutua zelan izan dan enteratzen.

Negurako jakin dabe tratu txarrik ez dala egon, tratuoi, izatekotan be desegokixa izan dala, Baina holako berririk ez dau ekarriko Gipuzkoan gehixen leitzen dan periodikuak, hori jakittekoker beste periodikuren bat irakurri behar.

Eta hau ikusitta neri pentsatzen jata "tratu txarra inun egotekotan periodiku horrek giputxoi emoten doskuna da ezta?".

Jabier Aranzeta

Akabo! Giputx danok larrittuta, gure ume gixajuak betirako bizkarroker euskerian kulpaz.

**Iragarri
zaitez.**

Tel:78.90.85
Faxa: 789043

Antonio Rodrigues Da Cruz

Galdaragintza arina
Hoditeria

IAPAM

Soldadura homologatuak
Erremitteritza

BERRIONDOKUA INDUSTRIALDEA, 8 - ELGETA
Tel: 76 81 01 Faxa: 78 90 14



URONDO
elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola, 26. Kataide industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa.
Tfnoak: 797815/771042 Faxa: 771476 ARRASATE.



M^a
ESTHER
Tel: 76 81 67



Argazkia: Aintzane Zubizarreta

Orduan Elgeta osoak egiten zuen dantzan.

Lehengok badakite zer zen dantza talde batean ibiltzea. Zoritxarrez, orain ez dago euskal dantzak ikaste-ko modurik. Oraindik ordea espero dezagun berriz ere aukera hori izatea, benetan interesgarria zen eta. Horrenbesteren artean batzuk ez ditugu ezagutu, barkatu eragozpenak.

Dantzana dakitenak edo behintzat lehen zekitenak behean daude zerrendatuta:

Gorengak: Julian Markiegi, Migel Arantzeta, Jon Agirrezaldegi, Josean Olabarria, Jabier Arantzeta, Jose Mari Alberdi, Alberto Arantzeta eta Alberto Agirrezaldegi.

Hurrengo ilaran: Mikel Arantzeta, Eli Arantzabal, Lurdes Olabarria, Jaione Basauri, Ane Arantzabal, M^a Karmen Irazabal, Mari Asun Zenitagoia eta Kontxi Arantzeta.

Hirugarren ilaran: Joseba Elkoro, Belen Royo, Laura Arantzabal, Ana Mari Gallastegi, Izaskun Izagirre, Idoia Arantzabal, Mari Angeles Astobitza, Enride Ormaetxea, Jose Luis Arantzeta, Maria Jesus Lidi eta Garbiñe Irazabal.

Laugarren ilaran: Roberto Larrañaga, Amaia Arantzeta, Amaia Arizmendiarieta, Lorea Elkoro, M^a Jesus Arantzabal, Sebastian Arantzeta eta Begoña Izagirre.

Bosgarren ilaran: Blanki Irazabal, Arantxa Berraondo, Garbiñe Markiegi, M^a Jose Oianguren, Gema Izagirre, Beatriz Basauri, M^a Irene Olabarria, Juan Jesus, Arotzena eta Maite Elkoro.

Seigarrenean: Josu Arantzabal, Kristina Irazabal, Nekane Arantzabal, Juan Karlos Erostarbe, Jose Luis Markiegi, Alex Arantzabal, Ibaibarriaga, Luisan Alkorta, Jose Luis Egizabal eta Alberto Arotzena.

Berengo ilaran: Izaskun Arizmendiarieta, Jabier Irazabal, Mikel Elkoro, Aitor Elkoro, ezezaguna, Jose Mari Arotzena, ezezaguna, Jose Agustin Gorrotategi, Gurutze Telleria, Olga Bolinaga, Miren Atxotegi, Aintzane Zubizarreta, Maite Suarez eta Arrate Saratsua.

Oh.: Seguru baztarren baten erretratu interesgarrin bat dakazula. Ez izan dudaik, bialdu *Goibekokalera* zure datuak ipinitxa.

Ibargarai, 11-13
BERGARA
Tel - Faxes: 767058




MODELO BERRIAK
Kalitate hobea preziorik onenean!



SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK

OBRAREN PROIEKTUA ERAMATEN DUGU



urriak 5ean denok Kilometroetara